

ALKATEAREN AGURRA

Gero eta etorkin gehiago bizi dira Barañainen eta gero eta etorkin gehiagok erabiltzen dituzte bertako udal zerbitzuak beste edozein biztanlek bezala. Hori dela eta, beharrezkoa da udal gidaliburu bat edukitzea, herriak eskaintzen dituen zerbitzuak azaltzeko eta pertsona horiei Barañain herria gehiago eta hobeki ezagutzen laguntzeko. Gidaliburu hau pertsona guztiek gure herria eta bertako baliabide publikoak hobeki ezagutzeko lagungarria izanen da, zalantzarik gabe. Garrantzitsua da jakitea pertsona guztiok ditugula eskubideak eta betebeharrak, bai eta ahaztu ezin ditugun jokabide arauak ere. Gidaliburu honek herriko baliabideak neurri handiagoan hedatzea eta horiek behar bezala erabiltzea erraztuko du; izan ere, jakin badakigu, Inmigratioari buruzko Udal Foroaren eta duela gutxi eraturako Inmigratioaren Udal Zerbitzuaren bidez, etorkinei zein atzerritarrei sortzen zaizkien zalantzen gainean hobe orientatzeko balioko duela. Udala herritarrengandik hurbilen dagoen baliabide publikoa da, eta gidaliburu honen helburua baliabide hori gure herrian hobeki ezagutzea da. Horregatik, behar bezala erabiltzeko eskatzen dizuet.

Sarrera:

Etorkinentzako baliabideei buruzko gidaliburu hau Kulturen arteko Barañaingo Foroaren proposamen gisa sortu da. Gidaliburua gure herrian bizitzen denbora gutxi daramazuen pertsonengan pentsatuta egin da, eta horren helburua Barañaingo zerbitzu eta baliabideei buruzko informazioa ematea da; izan ere, ezinbestekoa da horiek ezagutzea, gero eta kulturantzagoa den kultur eta gizarte berri batera moldatzeko.

Gidaliburua Barañaingo Inmigratioaren Udal Zerbitzuak egin du, Udaleko arlo ezberdinekin elkarlanean, eta gure herrian hiztunik gehien dituzten hizkuntzetara itzuli da.

Gidaliburu hau baliagarria izatea espero dugu.

Kokaleku geografikoa.

Barañain Iruñerrian dagoen udalerrri nafar bat da. Nafarroako hiriburutik 3 kilometro eskasera dago.

Azken hamarkadetan, Barañainen biztanleriaren hazkunde nabarmena gertatu da. Gaur egun, 22.000 pertsona baino gehiago daude erroldatuta; hori dela eta, Barañain Nafarroako hirugarren udalerrria da, biztanle kopuruari dagokionez, Iruñearen eta Tuteraren atzetik. Erroldaren datuak kontuan hartuta, 2006ko urrian, Barañainen 22.399 pertsona zeuden erroldan izena emanik.

Barañaingo Udala:

Erroldan izena eman nahi baduzu, Udalera joan behar duzu. Etorkin guztiek dute erroldan izena emateko aukera, haien administrazio egoera edozein delarik ere. Erroldatuta egoteak osasun arreta jasotzeko eta 16 urtetik beherakoek hezkuntza jasotzeko eskubideak dakartza berekin, besteak beste.

Egoitza baimen iraunkorra ez duten biztanle etorkinek errolda bi urtean behin berritu behar dute. Hori egiteko, gizabanako bakoitzak Udalera joan behar du, behin jakinarazpen gutuna jaso eta gero, eta Atzerritartasunaren Identifikazio Zenbakia (AIZ) edo pasaportearen aurkezten beharko du.

Harremanetarako:

- Udala: Udaletxeko plaza, z.g.
Harremanetarako telefonoa: 948 28 63 10 info@baranain.com
Web orria: www.baranain.com
- Udaltzaingoa: 948 28 63 12
24 orduak: 948 18 10 00

012 informazio telefonoa:

Barañaingo Udalak tokiko informaziorako telefono zerbitzu bat du. Telefono hori 012 zenbakia da eta, bertan, honako gai hauei buruzko informazioa jasotzen ahalko duzu: izapideak; enplegu deialdiak; ordainagirien kopiak; errolda ziurtagiriak; pleguen eta lehiaketei buruzko jakinarazpenak; jarduerak; laguntzak; udal ekipamenduak; kultur, kirol, gazte... ekitaldietarako izen-emateak. Horretaz gainera, zenbait zerbitzutarako alde zuzeneko hitzordua hartzen ahalko duzu (telezentroa, enplegua, inmigrazioa...) Zerbitzua 8.00etatik 19.00etara eskaintzen da, astelehenetik ostiralera, eta, 9.30etik 13.30era, larunbatetan. Deia-eren kostua beti berbera da (0,36 euro), kontsultak irauten duen denbora edozein delarik ere. Nafarroatik kanpo deitzen baduzu, telefono honetara deitu beharko duzu: 948 21 70 12.

Hezkuntza:

Adin txikikoen eskolatzeari derrigorrezkoa eta doakoa da 16 urte betetzen dituzten arte. Adin horretatik aitzina, pertsonak erabakitzen du derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan jarraitu ala lan munduan sartu nahi duen.

Ikastetxeen sailkapena:

- Haien mendetasunaren arabera:

- *Publikoak*, administrazioaren mende daude guztiz.
- *Itunduak*, hezkuntza itundu da, baina ez daude erakunde erlijiosoen edo elkarte pribatuen mende. Kuota bat ordaindu behar da hileroko, Gurasoen Elkarterako, ikasmaterialerako edo beste gastu batzuei aurre egiteko.

- Ematen den heziketa zikloaren arabera:

- *Haur Hezkuntza* (0tik 3 urtera bitarte)
- *Lehen Hezkuntza* (6tik 12 urtera bitarte)
- *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza* (12tik 16 urtera bitarte)

- Hizkuntza ereduaren arabera:

- *G eredu*: irakaskuntza gaztelaniaz da.
- *A eredu*: irakaskuntza gaztelaniaz da eta euskara ikasgaia da.
- *B eredu*: ikasgaiak gaztelaniaz eta euskaraz dira.
- *D eredu*: irakaskuntza euskaraz da eta gaztelania ikasgaia da.

Ikasleak eskolatzeko prozedura:

Eskolatzeko, haur edo gazteak Barañainen bizi behar du.

Onarpen eskabidea eta eskatzen diren agiriak familiak aukeratutako lehenengo ikastetxean aurkeztu behar dira. Hiru ikastetxe eskatzen ahal dira, lehentasun ordenaren arabera sailkatuta.

Eskolatzeko epeak eta betekizunak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira.

Onartu eta baztertuen zerrendak, bai eta matrikula formalizatzeko datak eta betekizunak ere, ikastetxeetan bertan jakitera ematen dira.

- Ohiko epea: martxorik apirilera bitarteko epea, ikaspostua eskatzeko.

- Ezohiko epea: iraileko lehendabiziko egunetan.

- Epez kanpo: adin txikiko bat gure herrialdera ikasturtea hasita dagoenean iristen bada, “epez kanpo” izeneko prozedura berezi bat dago. Aitzineko kasuotan bezala, aukeratutako ikastetxea edo etxetik gertuen dagoena arduratuko da horretaz. Ikastetxeak ikaspostu libreak baditu, ikaslea epe laburrean onartuko da. Bestela, herriko Eskolatzeko Batzordeak edo Hezkuntza Departamentuko Eskolatzeko Batzordeak (848 42 69 77 telefonoa) erabakiko du zer egin.

Barañaingo ikastetxeak:

- Udalaren Haur Eskola: D eta G ereduak daude bertan. Udaletxeko hirib., z.g. – Harremanetarako telefonoa: 948 18 69 50

- Los Sauces ikastetxe publikoa: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; G eta A ereduak. Erdiko hirib., 1 – Harremanetarako: 948 198537 - cp.lossauces@pnte.cfnavarra.es

- Alaitz ikastetxe publikoa: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; D ereduak. Erdiko hirib., 3. – Harremanetarako: 948 28 60 15 - cp.alaitz@pnte.cfnavarra.es

- Eulza ikastetxe publikoa: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; G eta A ereduak. Eultzako hirib., 54 – Harremanetarako: 948 28 60 95 - cp.eulza@pnte.cfnavarra.es

- Santa Luisa de Marillac ikastetxea: ikastetxe itundua da. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza eskaintzen ditu. G ereduak. Pedro Bidagor jauna. k., 2 – Harremanetarako: 948 25 07 85 - marillac@sip2000.es

- Alaitz BHI: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa; D ereduak. Iruñeko etorb., 18 B – Harremanetarako: 948 28 63 19 - ies.baranain@pnte.cfnavarra.es

- Barañain BHI: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa; G eta A ereduak. Erdiko hirib., 3 – Harremanetarako: 948 28 60 16 - ies.alaitz@pnte.cfnavarra.es

Barañaingo beste hezkuntza zerbitzu batzuk:

Halaber, bi tailer eskola daude, deseskolatze arazoak dituzten gazteentzat. Tailer eskola horiek Nafarroako Gobernuaren lanbide lantegien barnean daude, eta, batean, metal arotzeria eta, bestean, automozioa ematen dira.

- Barañaingo Lanbide Tailerra (V. del Camino BHI): metal arotzeria ematen da. Industrialdea, 2. nabea – Harremanetarako: 948 18 12 37 - tp.barana@pnte.cfnavarra.es

- Barañaingo Lanbide Tailerra (Donapea BHI): ibilgailuen konponketa, eta txapa eta pintura ematen dira. Industrialdea, 2. fasea, 10. nabea – 948 18 12 67

Euskara: Barañaingo eta Nafarroako berezko hizkuntza.

Euskara belaunaldiz belaunaldi transmititu da Nafarroan. Gainera, Barañaingo herritar askok euskaraz dakite haurrak zirenean ikastetxeetan ikasi zutelako (hezkuntza eskaintza kontsultatzen ahal duzue, hezkuntzari buruzko atalean) edo helduagoak izan direnean euskaltegietan ikasi dutelako (ikaskuntza zentro horietan euskara irakasten zaie gazte eta helduei). Urrutiago joan gabe, Barañainen **IKAko Sahast Euskaltegia** duzue (Haraneko etorb., 2, behe; telefonoa: 948 18 83 25).

Udala, Udalaren Euskara Zerbitzuaren bidez, ahalegin handia egiten ari da gure hizkuntza berreskuratzeko, baina hizkuntza gutxitua izaten jarraitzen du oraindik ere.

Ezagutu ezazu euskara, gure kultura hobeki ezagutuko baituzu. Eta, horrela, hobeki ezagutuko dugu elkar eta gertuago egonen gara elkarrengandik. Anima zaituz! Udalak euskara ikasteko laguntzak ematen ditu. Argibideak: **Udalaren Euskara Zerbitzua**. Udaletxeko plaza, z.g., 2. solairua. Harremanetarako: 948 28 63 09; euskaraz@baranain.com

Osasun zerbitzuak:

Barañainen Oinarrizko Osasun Laguntzako 2 zentro daude:

- **Barañaingo Osasun Etxea I:** Merkatal hirib., z.g. – Hitzordua hartzeko telefonoa: 948 19 85 85 / Larrialdietarako telefonoa: 948 19 83 30

- **Barañaingo Osasun Etxea II:** Caimito del Guayabal 1. zk. – Hitzordua hartzeko telefonoa: 948 28 75 40 / Larrialdietarako telefonoa: 948 28 75 29

Zentro hauetakoren batean mediku bat izateko eskubidea duzu. Medikua bizi zaren eremua kontuan hartuta esleituko zaizu. Dena dela, medikua aukeratzeko eskubidea duzu, halaber.

Bi osasun etxeetan medikuak, erizainak, gizarte langilea eta harrera langileak daude. Azken horiengana jo beharko duzu hitzordua eskatzeko.

Osasun arazorik baduzu, hitzordua eskatu eta Osasun Txartela eduki beharko duzu. Txartela ez baduzu, harreran esanen dizute zer egin behar duzun hura eskuratzeko.

Barañainen **Emakumeari Laguntzeko Zentro** bat dago, baita ere. Zentro horretan, ginekologiako, haurdunaldia kontrolatzeko eta sexu heziketako kontsultak egiten dira. Zentroa Barañaingo Osasun Etxea IIko beheko solairuan dago. Hitzordua hartzeko telefonoa: 948 28 75 40 / Larrialdietarako telefonoa: 948 28 75 29.

Laguntza espezializatua osasun etxeetatik kanpo ematen da, ospitaleetan eta espezialitate zentroetan. Zentro horietara joateko, lehenik zure familiako medikuarengana jo beharko duzu.

Larrialdiak:

*Oso larria ez bada, Osasun Etxera deitu behar duzu.

*Larria bada, ospitaletako larrialdi zerbitzuetara jo behar duzu:

Bideko Amabirjina (haurrak)

Nafarroako Ospitalea (helduak)

*Oso larria bada, 112 telefono zenbakira deitu behar duzu.

Farmazia:

Farmaziak itxita badaude eta botikaren bat erosi behar baduzu, 112 telefono zenbakira deitu behar duzu eta, horrela, guardiako farmazian erosten ahalko duzu.

Osasun ziurtagiri ofiziala:

Administrazioak osasun ziurtagiri ofizialak eskatu ohi ditu, egoitza baimenak edo gidabaimenak lortzeko. Inprimakiak Medikuen Elkargoko Azterketa Zentroan erosi behar dira (Gaztelugibel k., 11, behea; Trafiko Burutzaren ondoan), jendeari harrera egiteko ordutegian: astelehenetik ostiralera, 8.30etik 15.00etara eta 16.00etatik 20.00etara; eta, larunbatetan, 9.00etatik 12.30era.

Inprimakiak 3,50 euro balio du, baina, azterketa zentroan bertan egiten bada, 20 euro ordaindu beharko dira guztira. Bakarrik inprimakia erosi eta, gero, dagokion Osasun Etxera joaten bazara, ezin izanen dizute azterketa kobratu, baina ez daude behartuta hura egitera. Pasaporte edo AIZ (izanez gero) eraman beharko da. Adin txikikoekin beren aitarekin edo amarekin joan beharko dute eta dagokien dokumentazioa eraman beharko dute. Argibideetarako, telefono honetara deitzen ahal duzu: 948 26 87 21. Ez da alde zuzeneko hitzordurik eskatu behar.

Gizarte zerbitzuak:

Helbidea: Bake plaza, z.g.

Harremanetarako: 948 19 98 70; ssb@baranain.com

Jendeari harrera egiteko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9.00etatik 14.00etara.

Gizarte langilearekin elkarrizketatzeko ordutegia: asteartetik ostegunera, 10.00etatik 13.00etara; alde zuzeneko hitzordua eskatu behar da.

Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoak gizarte zerbitzuen arloko eskubideen, betebeharren eta baliabideen gaineko informazioa ematen die gizabanakoei, familiei eta gizarte taldeei. Halaber, udalaren berezko edo/eta kanpoko (Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua, Osasuna, Mankomunitatea...) gizarte laguntzak, baliabideak eta zerbitzuak baloratu, izapidetu, eta horiei buruzko informazioa eman eta jarraipena egiten da.

Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoaren egitura bi programa multzo handitan banatzen da:

Programa orokorra: bertan, eskaera ekonomiko edo Gizarte Zerbitzuen Arloko eskaera guztiei erantzuten zaie, bai udalerrikoei bertakoei bai Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutukoei.

Programa espezifikokoak: haien ezaugarriak direla eta, esku-hartze zehatza behar duten taldeei zuzentzen zaizkie:

- Haur eta gazteei zuzendutako prebentzio plana
- Familiei etxean laguntzeko programa: familien hezkuntza eta Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua.
- Emakumeari laguntzeko programa:
 - Aholkularitza juridikoa: banan-banako laguntza, eta orientazioa, familien eskubideei, tratu txarrei eta salaketak jartzeari, eta ezkontzaz kanpoko elkartzeen araupetzeari buruzko gaien inguruan... Jendeari harrera egiteko ordutegia: asteartean, 9.00etatik 15.00etara; alde zuzeneko hitzordua eskatu behar da.
 - Emakumei laguntza psikologikoa emateko zerbitzua, tratu txarrak, bereizketa traumatikoak... izaten dituztenean. Jendeari harrera egiteko ordutegia: asteazkenetan, 9.00etatik 15.00etara; alde zuzeneko hitzordua eskatu behar da.
 - Baztertuak izateko arriskuan dauden emakume taldeentzako laguntza: aholkularitza, gatazka egoeretan. Gizarte baliabideei buruzko informazioa eta horien izapideak egitea. Alde zuzeneko hitzordua eskatu behar da gizarte langilearekin.

- Udalaren diru-laguntzak. Bi diru-laguntza mota daude: gizabanakoei/ familiei zuzendutakoak (eskola jantokia, bono-taxia...) eta talde eta elkarteei zuzendutakoak.
- Gizartean eta lan munduan sartzea: enplegu sozial babestua...

Emakumearen Arloaren zerbitzua:

Helbidea: Bake plaza, z.g.

Harremanetarako: 948 26 55 58; pio@baranain.com

Emakumeari harrera egin eta laguntzeko gunea: astelehenetik ostegunera, 9.00etatik 13.00etara.

Barañaingo Udalak Aukeren Berdintasunerako teknikari bat du. Haren zereginak, besteak beste, emakumearen prestakuntza (prestakuntza aukeren berdintasunean...) eta sustapen soziala dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera. Barañainek Aukera Berdintasunaren aldeko II. Plana dauka. Plana 2005eko irailaren 29an onetsi zen eta 4 urteko indarraldia du. Harrera eta emakumearen gaiei buruzko informazioa (baterako erantzukizunaren aldeko edo emakumearen aurkako indarkeriaren inguruko sensibilizazio kanpainak, martxoaren 8ko ospakizuna...); baterako hezkuntza (baterako hezkuntzako tailerrak, ikastetxeetan); emakumeen hazte pertsonala eta sortzailea (antzerkia eta abar) eta bestelakoak (haur masajea eta abar) errazteko ikastaroak, bai eta etxeko konponketei, informatikari, sukaldaritzari eta abarri buruzko ikastaroak ere; baliabideak eta zerbitzuak.

Sustapen eta Garapenerako Bulegoa:

Helbidea: Merkatal hiribidea, 4. zk.

Harremanetarako: 948 19 72 95; aedl@baranain.com

Bulego horretan zerbitzu hauek eskaintzen dira:

Telezentroa: zerbitzu horrek Interneten dohainik sartzeko aukera ematen du; aldez aurretik erreserbatu behar da, 012-Infolocal telefono zenbakian edo bertara joanez. Horretaz gainera, Interneti eta Informatikari buruzko oinarritzko tailerrak eskaintzen dizkie dohainik Barañainen erroldatuta dauden biztanleei.

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 16.00etatik 21.00etara.

Harremanetarako: Kudeaketa: 948 19 72 95; aedl@baranain.com

Dinamizatzailea: 948 19 92 48; telecentro@baranain.com

Hiritarren Partaidetza: horren helburuak herritarrek udal bizitzaren kudeaketan duten parte-hartze aktiboa indartzea eta Barañaingo herritarren arteko elkarteratzea babestu eta sustatzea dira.

Harremanetarako: 948 19 72 95; aedl@baranain.com

Inmigrazioa: UGTko Inmigrazio Departamentuak dohainik kudeatzen duen zerbitzua da; programaren jarduketak hiru ardatz nagusi hauetan zehazten dira:

- Hirian 2004an egin zen Kulturen arteko Foroan onetsitako proposamenak lehenetsi eta gauzatzea.
- Lehenengo Harrerako Programa: doako zerbitzua da, horren bidez, bertako biztanleei zein etorkinei atzerritartasunari eta inmigrazioarekin lotutako gai guztiei buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematen zaie. Harrera ordutegia: asteartean, 10.00etatik 13.30era; aldez aurretik hitzordua eskatu behar da, 012-Infolocal telefonoaren bidez.

- *Kulturen arteko Barañaingo Foroaren dinamizazioa eta eratzea:* udalerriko bertako eta udalerritik kanpoko gizarte ordezkarien arteko partaidetzarako, elkarriketarako eta elkartrukerako plataforma, inmigrazio arloko eskaerak eta beharrak hauteman eta planteatzeko eta horiei buruzko informazioa emateko. Kulturen arteko guneak sortzea erraztea; izan ere, bizikidetzak baketsua, begirunezkoa eta aberasgarria, berdintasun eta elkarrekiko begirune irizpideetan oinarritutakoa bermatzeko ezinbestekoak dira, gure komunitatea osatzen duten kulturetako pertsonen arteko topaketak ahalbidetu eta errazten dituelako.

Zatoz Inmigrazio Zerbitzura, atzerriartasunari, kulturartekotasunari, bitartekotzari eta abarri buruzko edozein kontsulta, zalantza, iradokizun, eskaera... egin nahi baduzu.

Harremanetarako: 948 19 92 49; @baranain.com

Enplegua: UGTko Enplegu Zentro Integralak kudeatzen duen doako zerbitzua da; lana bilatzeko eta lan poltsan sartzeko orientazioa eta aholkularitza eskaintzen ditu.

Ordutegia: astelehenetan, 9.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.00etara, eta, asteazken eta ostegunetan, 9.00etatik 17.00etara.

Harremanetarako: 948 19 85 93; empleo@baranain.com

Yamaguchi Enplegu Bulegoa (Nafarroako Enplegu Zerbitzua)

Nafarroako Gobernuaren doako zerbitzua da, lana eskatzeko (lan eskaeraren txartela), eta lan prestakuntzarako, aholkularitzarako eta orientaziorako.

Helbidea: Arcadio María Larraona k., 1-2. solairua. Iruña (Golem zinemen ondoan)

Harremanetarako: 848 42 45 00; epamvado@cfnavarra.es; cdedoupl@cfnavarra.es.

Web orria: www.empleo.navarra.es

Enpleguko Institutu Nazionala (EIN). Prestazioak.

Estatuko enplegu zerbitzu publikoa da, eta langabezi prestazioak, sorospinak eta gizarteratzeko errenta aktiboak kudeatzen ditu.

Helbidea: Arcadio María Larraona k., 1-2. solairua. Iruña (Golem zinemen ondoan)

Harremanetarako: 848 42 45 01

Kultura:

Kulturagunearen barruan (Nafarroako Komunitatea kalea, 2) hauek daude:

- **Kultur Etxea:** bertan, erakusketa areto bat, elkarreentzako areto bat, erabilera anitzeko areto bat eta lau gela daude. Lau gela horiek ikasturte bakoitzean programatutako kultura lantegiak (dantza latinoak, zeramika, marrazkia eta pintura, zaharberritzea eta antzerkia) eta momentu zehatzetan sortzen diren beste lantegi batzuk egiteko erabiltzen dira. Urtean zehar, zenbait lehiaketa, zinema zikloak eta ziklo ospetsu-ospetsuak egiten dira; horien artean azpimarragarriena Txotxongiloen Jaialdia da.

Harremanetarako: 948 18 53 10; cultura@baranain.com

Jendeari harrera egiteko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9.00etatik 14.00etara. Zabalik dago 8.00etatik 21.30era. Erakusketa aretoaren ordutegia: astelehenetik ostiralera, 18.30etik 20.30era.

- **Barañaingo liburutegia:** Kultur Etxeko lehendabiziko solairuan dago; bertan, haurrentzako gela bat, gela orokor bat, ikasteko gela bat eta liburuzainen bulegoa daude. Irakurle txartela (liburutegian lortzen ahal da, dohainik; horretarako,

galdetegi bat bete, eta karnet neurriko bi argazki eta pasaporte, AIZ edo NAN eraman behar dira). Ezinbesteko agiria da liburutegiko zerbitzuak erabiltzeko: mailegua (liburuak, filmak, diskoak eta aldizkaria), Interneten sartzea eta fonoteka. Halaber, 3tik 5 urtera bitarteko haurrei zuzentzen zaien “Ipuinaren ordua” jarduera, bai eta hiru literatur tertulia ere eskaintzen ditu.

Harremanetarako: 948 28 66 28; bibliabar@cfnavarra.es

Web orria: <http://www.bibliotecaspublicas.es/baranain/index.jsp>

Jendeari harrera egiteko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9.00etatik 13.00etara. Udan (ekainaren erdialdetik irailaren erdialdera) ordutegi berezia du: 8.30etik 14.30era.

- **“Luis Morondo” Musika Eskola:** udal patronatuak kudeatzen du; haren filosofia haur gehienek musika zaletasuntzat edukitzean oinarritzean da. Bi musika banda, bi orkestra klasiko, akordeoi orkestra bat, bi txistu banda, big-band, pop taldeak, eskolania eta ahots zuriko korua ditu.

Harremanetarako: 948 18 53 43

- **Barañain Auditorioa:** fundazio batek kudeatzen du; 650 ikusle hartzen ahal dituen kulturgune bat da. Sotoa eta sei solairu ditu; bertan, kultur ikuskizunak (filmak, antzerkiak, kontzertuak, dantza...) eta arlo ezberdinei buruzko ikastaroak egiten dira.

Harremanetarako: 948 28 10 38; auditorio@auditoriobaranain.com

Web orria: www.auditoriobaranain.com

Jendeari harrera egiteko ordutegia: 9.00etatik 14.00etara.

Txarteldegia ordutegia: 18.00etatik 20.00etara, astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik, eta ikuskizun bakoitza baino bi ordu lehenago. Aldez aurreko salmenta telefonoak: 012 eta 948 21 70 12.

Kirolak:

Gure herriko kirolak ezarpen handia du udal mailan.

Barañaingo Udalak kirol instalazio ugari ditu: kiroldegia, atletismo pistak, Retegi pilotalekua eta Lagunak Udal Zerbitzuaren barruan dauden guztiak (udako igerilekuak, igerileku estalia, hidroterapia gunea, patinodromoa, futbol zelaiak, tenis pistak, etab.). Kirol eskaintza oso zabala da, baita ere. Hainbat jarduera programatzen dituzte udal mailan lan egiten duten bi kirol zerbitzuek:

- Kirolaren Udal Bulegoa
- Lagunak Udal Zerbitzua

Adin guztietarako kirol jarduerak daude: 5etik 16 urtera bitarteko haurrentzat (kirol eskolak), gazteentzat, helduentzat eta hirugarren adineko pertsonentzat.

Programak oso anitzak dira, halaber. Izan ere, eskaintza oso zabala da: aisialdiko kirola, kirol federatua, herri txapelketak, ikaskuntza ikastaroak, kirol ikuskizunak... Horregatik guztiagatik, biztanleei kirol modalitate ugari eta oso programazio anitza eskaintzen zaizkie.

Kirol programei, jarduerari eta instalazioen erabilerari buruzko informazio guztia funtzionamenduan diren kirol zerbitzuetan kontsultatzen ahal da:

- **Kirolaren Udal Bulegoa:** Kiroldegia: Ipar plaza etor., z.g.
Telefonoa: 948 18 69 34
- **Lagunak Udal Zerbitzua:** Barañaingo erronda

Bake Epaitegia:

Barañaingo Bake Epaitegia Iruñeko Epai Barrutiaren mende dago. Bertan, Erregistro Zibila dago. Erregistro Zibila Justizia Ministerioaren mende dago eta, bertan, pertsonen egoera zibilari lotutako gertakariak erregistratzen dira. Lau ataletan banatzen da: jaiotzak eta orokorra; ezkontzak; heriotzak; tutoretzak eta legezko ordezkariak.

Erregistro Zibilean zerbitzu hauek erregistratzen dira dohainik: jaiotzak, seme-alabatasuna, izen-abizenak eta horien inguruko aldaketak, naziokotasuna eta auzotasuna, ezkontza, heriotza, guraso ahala, tutoretza eta gainerako legezko ordezkariak... Horretaz gainera, bizirik egotearen eta egoera zibilaren fede emateko agiria egiten da, pentsioa ordaintzen duen entitateak hala eskatzen badu.

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak horiek gertatzen diren lekuan erregistratu behar dira. Hala ere, horien leku-aldatzea eskatzen ahal da, pertsona bakoitza erroldatuta dagoen udalerriko Erregistro Zibilean erregistratuta gelditzeko.

Izapide horien edo beste batzuen gaineko argibideetarako, Bake Epaitegira (Merkatal hirib., 2) jotzen ahal duzu, astelehenetik ostiralera, 9.00etatik 14.00etara. Harremanetarako: 948 27 66 30

Aisialdia eta astialdia:

Ludoteka:

6tik 12 urtera bitarteko haurrei zuzendutako gunea da. Bertan, adin ezberdinentzako mota, tamaina... askotako jolas eta jostailuak daude, eta toki aproposa da jolasteko, ongi pasatzeko, eskulanak egiteko, festetarako, lantegietarako... Ikasturtean zehar ordutegi hau dugu: 17.00etatik 19.00etara. Astelehen eta asteazkenetan euskaldunei zuzentzen zaie; astearte eta ostegunetan, erdaldunentzat da; eta, ostiraletan, mistoa da. Jendeari harrera egiteko ordutegia: astearte eta ostiraletan, 16.00etatik 17.00etara. Zerbitzu hori aitei, amei, hezitzaileei, profesionali... zuzentzen zaie, eta orientazioa eta aholkularitza eskaintzen ditu, proposamenak eta iradokizunak egiten ahal dira...

Helbidea: Merkatal hirib., 22, behea
Harremanetarako: 639 571 472

Baragazte:

Gizarte-hezkuntzazko zentro bat da. Ordutegia: astelehenetik larunbatera, 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 22.00etara. 12tik 30 urtera bitarteko gazteei zuzentzen zaie eta, bertan, hauek daude: Gazteen Informazio Bulegoa; gazteei interesatzen zaizkien gaietarako aholkularitzak; mota ezberdinetako ikastaroak eta lantegiak; adiskideekin elkartu eta jolasteko gunea. Horretaz gainera, zenbait gela (dantzakoa, lantegia, informatikakoa, ikus-entzunezkoa, DJentzako gela, erabilera anitzekoak...) eta mailegu materiala (eskalatzeko materiala, ikus-entzunezkoa, artxiboko agiriak...) lagatzen ahal dira. Halaber, edozein talde edo elkarteren ekimenak babesten dira, baldin eta beren jarduerak gauzatzeko laguntza behar badute.

Helbidea: Herri Zaharra plaza, z.g.
Harremanetarako: 948 38 59 25; CRJBARA@telefonica.net
Web orria: www.baragazte.org

Erretiratuen elkarteak:

Entrevientos Erretiratu eta Pentsionisten Elkarteak Barañainen dauden erretiratuen elkarte biak kudeatzen ditu. Bata Bake plazan, z.g. dago (948 27 90 30) eta taberna, joko aretoa, liburutegia eta pilotalekua ditu; bestea Caimito del Guayabal plazan, z.g. dago (948 18 32 26) eta taberna, ile-apaindegia eta joko aretoa ditu. Elkarte horrek urte osoan antolatzen ditu jarduerak (txangoak, festak, aisialdi tailerrak...), eta adineko pertsonen gizarteratzea, eta aisialdiaren eta astialdiaren gozatzea sustatzen ditu.